



2023KO LEHEN HIRUHILEKOKO EMAITZAK

2023ko maiatzak 5

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HONEK INFORMAZIO HELBURUA DU SOILIK

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1. 2023ko 1HHko DATU
AIPAGARRIENAK
2. FINANTZA-INFORMAZIOA
3. JASANGARRITASUNA/ESG
4. AURREIKUSPENAK
5. ERANSKINAK



 1

2023ko 1HHko DATU AIPAGARRIENAK

KONTRATAZIOA

768 M€
-% 33

vs 2022ko 1HH

ESKARI ZORROA

13.066 M€
-% 1

vs 2022/12/31

SALMENTAK

952 M€
+% 29

vs 2022ko 1HH

EBIT

43 M€
+% 23

vs 2022ko 1HH

EBIT Mj

% 4,6
Ehuneko -0,2 puntu

vs 2022ko 1HH

JASANGARRITASUNA

ESG ratinga hobetzea:

- MSCI: BBBtik Ara
- S&P: 56tik 64ra

Eskarien zorroa maila gorenetan dago eta horrek enpresaren jarduera epe ertainera begira bermatzen du




Gauzatze-erritmo handia eta salmenten maila gorena lehen hiruhilekoan

Emaitza operatiboak goranzko joera du eta errentagarritasuna oraindik murriztuta dago, baina aurreikuspenen araberakoa da

ESGari dagokionez, CAF sektoreko batezbestekoaren gainetik dago oraindik ere

CAF-EK MAXIMOTAN DAUDEN GAUZATZE MAILEKIN EKIN DIO URTEARI GORABEHERARIK GABEKO TESTUINGURUAN, ETA EGINDAKO AURREIKUSPENAK BERRETSI DITU

HIRUHILEKOKO KONTRATAZIOA ONA IZAN DA OSAERARI DAGOKIONEZ



Kontratazioak, aldien artean, gehienetan, aldakortasun handia izaten du.

Zifra horrek ez ditu jasotzen oraindik sinatu gabe, baina esleituta dauden kontratuak, **450 M€ inguruko balioa dutenak.**

Gaur egun, garrantzi handiko **kontratazio batzuk baieztatu** zain dago enpresa.

Hiruhilekoko kontratazio-bolumena **2022an lortutakoa baino txikiagoa** izan da. Dena den, kontuan izan behar da urte hartakoa ezohikoa izan zela merkataritzari dagokionez, 2022ko 1HHan garrantzi handiko hainbat kontratu jaso baitziren.

Kontratazioaren **profila aldekoa** da:

- Kontratazioaren % 50 inguru **kontratu-zabalkuntzekin lotuta** dago eta horrek batez ere tren-ibilgailuen eta zerbitzuen jardueran izan du inpaktua.
- **Mantentze-lanetako eta sistemen hainbat kontratu** sinatu dira aldi horretan.
- **CAFentzat interes handiena duten geografietan** eskari berrien kontzentrazio handia izan da.

Estrategia komertzial hautakorra, enpresaren helburu estrategikoekin lerrokatuta.

Zero isurpeneko proiektuen kontratazio handia.

Jarduera komertzial handia gaur egun, trenen eta autobusen arloetan **hurrengo hilabeteotan hezurmami daitekeen proiektuen zorro sendoarekin.**

(jarraipena)

Aldi horretan iragarritako eta sinatutako kontratazioak

/ CORADIA ESKUALDEKO TRENAK (FRANTZIA)

- Coradia Polyvalent plataformako eskualdeko 18 tren
 - 11 tren Akitania Berria eskualderako (Frantzia)
 - 7 unitate Senegalerako
- **Plataforma horretan oinarritutako lehen eskariak**, Reichshoffen-eko (Frantzia) fabrikazio-lantegia erosi ostean.
- Kontratuak **etorkizunerako aukera osagarriak** jasotzen ditu.

161 M€



/ BUDAPEST TRANBIA (HUNGARIA)

- 31 tranbia
- 2014an sinatutako hasierako kontratuaren baitan bezeroak gauzatutako unitateen **zabalkuntzako** hirugarren aukera da hau.

<100 M€



/ ZERO ETA ISURPEN BAXUKO AUTOBUSAK ALEMANIARAKO ETA ITALIARAKO

HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK ASCHAFFENBURGERAKO (ALEMANIA)

- Hidrogeno bidezko 12 autobus; haietako bi 18 metroko ibilgailu artikulatuak.
- **18 metroko hidrogeno bidezko autobus artikulatuen lehen eskaria da Solarisentzat.**


AUTOBUS HIBRIDOAK CAGLIARIRAKO (ITALIA)

- Urbino 12 motako 100 autobus hibrido

>40 M€



ESKARIEN ZORROA MAILA GORENETAN DAGO ETA HORREK ENPRESAREN JARDUERA EPE ERTAINERA BEGIRA BERMATZEN DU



Eskarien zorroa **maila historikotan** dago, 13.000 M€-ren gaineretik

Btb=0,8; aldi horretako **exekuzio handiarengatik** (trenen eta autobusen segmentuetan)

Zorroaren profila **Plan Estrategikoaren helburuekin lerrokatuta** dago

Zorro horrek **ez ditu barne** oraindik sinatzeke dauden esleipen hauek:

- Renferentzako aldiriko trenen hornidura (Espainia)
- Tranbien hornidura Alcalá de Guadaíra udalerrirako (Espainia)
- Hidrogeno bidezko 18 m-ko autobus artikulatuen hornidura (Alemania). Solarisek orain arte irabazitako hidrogeno bidezko autobusen kontratu handiena.
- Metro-unitate gehiagoren hornidura DLRentzat (Docklands Light Rail), Erresuma Batuan
- Distantzia ertaineko 17 tren elektrikoren mantentze integrala 15 urtez

Esleipen horien guztizko balioa **450 M€ ingurukoa** da.

¹ Erositako perimetroro 2022 urte osoko salmentak jasotzen ditu (216M€).

² Ratioa 2023/03/31n, 2022an izandako salmenten gainean kalkulaturik.



/ 2
**FINANTZA-
INFORMAZIOA**

SALMENTETAN ERREKORRA ETA ERRENTAGARRITASUN OPERATIBOAK AURRERA EGIN DU AURREIKUSPENEN ARABERA

(milioi eurotan)	2022ko 1HH	2023ko 1HH	Ald. 2023ko 1HH/2022ko 1HH
NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	736	952	+% 29
USTIAPENAREN EMAITZA	35	43	+% 23
EBIT Marjinaren %	% 4,8	% 4,6	-
Finantza arloko emaitza	(6)	(13)	+% 105
Finantza-sarrerak	1	3	+% 146
Finantza-gastuak	(11)	(17)	+% 50
Trukeko edo kanbioko aldeak	6	2	-% 66
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(2)	(1)	-% 61
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	2,1	1,9	-% 9
ZERGEN AURREKO EMAITZA	31	32	+% 4
Irabazien gaineko zerga	(10)	(11)	+% 11
Zergen ondoren, emaitza garbia	21	21	% 0
Interes minoritarioak	0,7	0,5	-% 28
SOZIETATE NAGUSIARI EGOTZITAKO EMAITZA	19,9	20,3	+% 2

Exekuzio sendoa, zorro handiari esker




Oinarri alderagarri txikiagoaren eraginez, salmentek urtetik urterako ezohiko igoera izan dute

Emaidza operatiboa salmenten gorakadaren arabera dela esan daiteke

Finantza-emaiztan 2022ko 1HHarekin alderatuta batez besteko interes-tasak izandako igoerari lotutako finantza-gastu handiagoak eta truke-aldeen ekarpen positibo txikiagoak izan dute eragina

GAUZATZE ERRITMO HANDIA ETA SALMENTEN MAILA GORENA LEHEN HIRUHILEKOAN BI SEGMENTUETAN

SALMENTAK




¹ Zifra honek 2022ko abuztuan eskuratutako perimetro berriak eratorritako 51 M€ biltzen ditu. Inpaktu hori albo batera utzita, salmenta organiko bateratuek eta tren arlokoek % 22 eta % 19 egingo zuketean gora hurrenez hurren.

EMAITZA OPERATIBOAK GORANZKO JOERA DU ETA ERRENTAGARRITASUNA ORAINDIK MURRIZTUTA DAGO, BAINA AURREIKUSPENEN ARABERAKOA DA

EBIT (M€) eta EBIT marjina (%) ¹

(aldi estankoak)



Errentagarritasun operatiboan oraindik ere eragina dute honako hauek: kostuen igoera, osagaien krisia eta autobusen entrega (inflazio-testuinguruaren eraginarekin).

Marjinak aurreikuspenen araberakoak dira, eta jarduera zertxobait hobetu da 2022aren amaierarekiko.




¹ Errentagarritasuneko metrika 2026ko Plan Estrategikoaren eta merkatuaren erregulatzailaren gomendioen araberakoa da.

An aerial photograph showing a landscape with a road, railway tracks, and green fields. The road is a two-lane asphalt road with a dashed white center line. To the left of the road are railway tracks with gravel ballast. The surrounding area is lush green with trees and fields. The text is overlaid on the left side of the image.

/ 3

JASANGARRITASUNA / ESG

ESG RATIOAK HOBETU ETA NEGOZIOETAN ETIKAREKIN LOTUTAKO GURE KONPROMISOA INDARTU DUGU



CAF Espainia arloko Compliance arloko elkarte nagusietako bateko (ASCOM) bazkide bihurtu da pertsona juridiko gisa eta horrek agerian utzi du negozioetako etika arloan eta araudiaren betetzeari dagokionez jardunbide egokiarekin eta betetzearen barne-kultura sustatzeko bere gain hartutako konpromiso irmoa.



¹Trenen sektoreko batezbestekoa (Alstom; Stadler; Talgo; CAF)
²IEQ Machinery and Electrical Equipment* industriako batezbestekoa: 20



/ 4

AURREIKUSPENAK

EPE LABURRERA ETA ERTAINERA BEGIRA GURE AURREIKUSPENAK MANTENDU DITUGU

CAF-EK 2023AN ERRENTAGARRITASUNA PIXKANAKA SUSPERTZEKO HELBURUA EZARRI DU


Aurreikuspenaren oinarriak:

- EKITALDIAN AURRERA JARRAITUKO DU OSAGAIEN HORNIDURAREKIN LOTUTAKO EGUNGO EGOERAK
- SUSPERRALDI ARGIKO BIGARREN SEIHILEKOA SOLARISENTZAT LEHEN SEIHILEKOAN TESTUINGURUAREN ERAGINAGATIK ERRENTAGARRITASUN HIGATUA IZAN DUTEN PROIEKTUEN EXEKUZIOA ONDOREN
- NAZIOARTEKO ERAKUNDE NAGUSIEK AURREIKUSPEN EKONOMIKO EGONKORRAK

/ 2023

Book-to-bill	≥1 Kontratazio selektiboa
Salmentak	+% 10-15
EBIT Emaizta garbia	Errentagarritasunaren hobekuntza 2022 urtearekiko
Dibidendua	Emaizten bilakaerarekin bat dator
FZG	Egonkortasuna 2022. urtearekiko
JASANGARRITASUNA	Isurpenen murrizketa: egonkortasuna ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

/ 2026



Salmentak	x1,6 inguru 4.800 M€ inguru	FZG/EBITDA	2,2x inguru M&A ondoren
EBIT	x1,8 inguru 300 M€ inguru	1&2 Irismena	% 30 Zero isurpen garbi 2045ean
Dibidenduak	Joera gorakorra, emaitzekin bat etorrita	3 Irismena	% 40 Zero isurpen garbi 2045ean

Aurreikuspen horiek CAFek 2022ko urteko emaitzetan iragarritakoak dira.

A photograph of a business meeting in progress. Several people are seated around a table, looking at and pointing to data on laptops and tablets. The scene is dimly lit, with a blueish tint, suggesting a professional and focused atmosphere. The text '5 ERANSKINAK' is overlaid on the left side of the image.

/ 5 ERANSKINAK

2023KO URTARRILA-MARTXOA ALDIKO ESKARIEN ZORROAN IRAGARRI ETA JASOTAKO KONTRATUAK

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	DESKRIBAPENA	BEZEROA	MOTA	AUKERA OSAGARRIAK	NEGOZIOA					ZENBATEKOA (M€)	
							IBILGAILUAK		GAINERAKO NEGOZIOAK				
							# unit.	Plataforma	Negozioa	Irismena	Ezaugarriak		
2023ko 1HH	Aschaffenburg	Alemania	Autobusen hornidura	Beria	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	12	>40
2023ko 1HH	Cagliari	Sardinia	Autobusen hornidura	Beria ez	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Autobus hibridoen hornidura	100	
2023ko 1HH	Budapest	Hungaria	Tranbietarako hornidurak	Beria ez	Luzapena	Bai	✓	31	Urbos				-
2023ko 1HH	Coradia Polyvalent	Frantzia eta Senegal	Eskualdeko trenen hornidura	Beria ez	Luzapena	Bai	✓	18	Coradia Polyvalent				161

ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2022ko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuandago** jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.caf.net) dago irakurgai, 11. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



